

# 2008-2009 Ikasturterako Deialdi Orokorra

## ADJUDIKAZIO BERRIA

**ESKABIDEA NON AURKEZTU:** Eskatzaileak 2008-2009an ikasketak egiten dituen unibertsitate-ikastetxean.

**ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPE OROKORRA:** 2008ko urriaren 17 arte, egun hori barne.

**PROZEDURA ERABAKITZEKO GEHIENENKO EPEA:** 2009ko apirilaren 17 arte. Erabakian agertzen ez diren eskabideak, ezetsi egin direla ulertuko da.

**ERREKURTSOAK:** Gorako errekurtsoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen aurrean. Aurkezteko epea hilabetekoa da behin betiko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

### ESKABIDEA BETETZEKO ARGIBIDE OROKORRAK

Eskatzaileak, bere onerako, interesik handienarekin, behar bezala eta bere osotasunean bete behar du inprimaki hau, datuak ez jartzeak edo gaizki betetzeak eskabidearen tramitazioa atzeratzea ekarriko baitu. Eskabideak garbi eta zuzenketarik gabe aurkeztu behar dira.

Bestalde, eskatzaileak eskabide honetako daturen bat ezkutatu edo gezurrezkoa jartzen badu, laguntza galduko du eta legeetan ezarrita dauden ondorioak jasango ditu. Aitorpenak konprobatu egingo dira. Bereziki, datu ekonomikoak Zerga-bilketako Administrazioekin alderatuko dira.

Eskaerak 2008-2009 ikasturtean ikasketak egin behar dituen ikastegian aurkeztuko ditu ikasleak. Epe orokorraz kanpo aurkezten diren eskaerak, ikasketak egiten dituen Unibertsitateko Gerentzian aurkeztuko dira (ikus deialdiko 40. eta 41. artikulua).

Inprimakia bolalumaz eta letra larriz beteko da. Laukitxoak dauden kasuetan, letra edo zenbaki bakoitza laukitxo batean jarri behar da. Laukidun gune ilunduak ez dira bete behar, Administrazioak betetzekoak baitira.

Unibertsitateetako Gerentziek azaldu eta argituko dituzte inprimaki honi buruz azal daitezkeen zalantza guztiak.

**OHARRA:** Argibide gehiago behar izanez gero, begiratu deialdiaren Agindua, inprimaki honetan ez baita informazio oso-osoa agertzen.

## AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK (42. artikulua)

- a) Administrazio-egoitzaren edo erroldaren ziurtagiria eta bertan bizilekuan bizi diren pertsona guztien zerrenda jasoko da.
- b) Familiako kide konputagarri guztien nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Europar Batasunaren hiritarren kasuan, egoitza txartelaren fotokopia eta atzerritarren kasuan egoitza baimenaren fotokopia.
- c) "Bezeroaren Kontuaren Kodea" agertzen den kontu korrontearen edo aurrezki-libretaren orriaren fotokopia; kode horrek hartzen ditu banku edo kutxaren kodea, bulegoaren kodea, kontroleko digitoa eta kontu-zenbakia. Eskatzaileak kontu horren titularra edo titularkidea, derrigorrez, izan beharko du **(kontu hori aktibo mantendu behar da eta ezin da aldatu ezta ezeztatu dirulaguntzaren zenbatekoa jaso arte)**.
- d) Zinpeko aitortpena. Bertan eskatzaileak egiaztatuko du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko zigor administratibo edo penalik ez duela, ezta horrelakorik eskuratzeko legezko debekurik ere, sexu bereizkeriagatik debekuak barne, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako, otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztutakoarekin bat etorritik.
- e) Familiaren mantentzaile nagusiaren eta, hala behar izanez gero, gainontzeko kide konputagarrien, 2007. urteari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko aitortpenaren fotokopia osoa edo Foru Ogasunaren egiaztagiria, aitortpena aurkeztu beharrik ez dutela adierazten duena.
- f) Laneko etekinen egiaztagiria (10 T) (2007an Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko aitortpena aurkeztu beharrik eduki ez zuten familia unitate/kide konputagarrien kasuan) eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren aitortpenean ez dauden gainerako sarrerren egiaztagiria, pentsioetatik, langabezi dirulaguntzetatik, kaleratze kalte-ordainetatik, enpresako osagarrietatik, Europako Batasunaren nekazaritza eta arrantzarako laguntzetatik, gizarteratzeko gutxieneko sarreretatik, elikagaietarako ekarpenetatik eta abarretik, familian konputagarri den edozein kidek 2007an jasotakoak.
- g) Hiriko eta landa-lurretako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko erreziboen fotokopia (2007. urteko kontribuzio erreziboak), ohiko etxebizitzari dagokiona izan ezik.
- h) Familiarekin bizi ez delako eta diru loturarik ez duelako egiaztagiria (dituen bizibideak eta bere etxebizitzaren alokairua edo titularitatea).
- i) Eskatzailea, unibertsitateko ikasketak direla eta, 2008-2009 ikasturtean zehar familiaren egoitzatik kanpo biziko delako egiaztagiria eta kasuan neba-arrebenak.
- j) Kenkarietarako eskubidea ematen duten egoeraren batean aurkitzearen dokumentuzko akreditazioa (Familia ugariaren tituluaren fotokopia behar bezala berriztatuta, elbarritasunaren egiaztagiria, ...).

Bere eskabidea erabakitzeko eskatzaileak interesgarriztat jotzen duen beste edozein agiri edo ziurtagiri ere aurkez dezake.

**Eskabideak, 8. orrialdearen karratuan izenpeturik aurkeztuko dira, aita, ama edo tutorearen adostasunaz;** izenpetze horrek instantzian agertzen diren datu guztien erantzule egiten direla adierazten du.

**OHARRA: Bere onerako berresten diogu eskatzaileari kasu bakoitzean eskatzen zaizkion dokumentu guztiak erantsi behar dituela, baten bat ez aurkezteak eskabidearen tramitazioa atzeratuko baitu.**

# LANBIDEEN KODEAK

(FAMILAKO SOSTENGATZAILE NAGUSIAREN LANBIDEA BETETZEKO)

## NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA ETA MENDIAK

- 11- Nekazaritza enpresariak (edo antzekoak), soldatadunak dituztenean.
- 12- Nekazaritza enpresariak (edo antzekoak), soldatadunik gabeak edo kooperatibakideak.
- 13- Nekazaritzako gainontzeko langileak edo antzekoak.

## ENPRESARIAK (aurreko atalekoak ez direnak)

- 21- 10 soldatadun edo gehiago dituzten enpresariak.
- 22- 10 soldatadun baino gutxiago dituzten enpresariak.
- 23- Soldatadunik ez duten enpresariak edo kooperatibakideak.

## ADMINISTRAZIO, MERKATARITZA EDO ANTZEKO LANETAKO LANGILEAK (funtzionari ez direnak)

- 31- Enpresa handietako Zuzendari Orokorrak eta goi-mailako zuzendaritza-langileak.
- 32- Administrazio edo Merkataritza sailletako buruak.
- 33- Administrazio eta Merkataritzako gainontzeko langileak.

## TEKNIKARI PROFESIONALAK (besterezentzat dihardutenak)

- 41- Profesionalak eta goi-mailako teknikariak (arkitektoak, ekonomistak, ingeniariak, medikuak,...).
- 42- Profesionalak eta erdi-mailako teknikariak (peritoak, maisu-maistrak, erizainak...).

## GAINONTZEKO LANGILEAK

- 51- Kontramaisu eta arduradunak.
- 52- Langile kualifikatu eta espezializatuak.
- 53- Zerbitzuetako gainontzeko langileak (garraioa, ostalaritza).
- 54- Espezializaziorik gabeko langileak.

## ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIO ETA KONTRATATUAK

- 61- Administrazio Publikoko goi-mailako kargudunak eta kidego bereziak (zuzendari orokorrak, estatuko abokatuak, epaileak, erroldalariak,...).
- 62- Goi-mailako eta erdi-mailako tituludun funtzionarioak.
- 63- Administrazioko gainontzeko langileak.

## AUTONOMOAK ETA LANBIDE LIBREAK (norbere kontura dihardutenak, soldatadunak izanik edo izan gabe)

- 71- Lanbide libreak (dentista, notaria, komisionista, abokatuak..).
- 72- Langile independentea (elektrikaria, artisaua, jostuna, iturgina,...).

## INDAR ARMATUAK

- 81- Jeneralak, buruak eta ofizialak.
- 82- Azpiofizialak, guardia zibilak, polizia nazionalak eta udaltzainak.

## BESTELAKO EGOERAK

- 91- Ikasleek egiten dituzten noizbehinkako lanak (haurrak zaindu, eskolak eman, laguntzaileak...).
- 92- Etxeko lanak.
- 93- Eskatzaileak ez du lanik egiten.
- 97- Askatasunik gabeko egoera.
- 98- Langabezian.
- 99- Edonolako pentsioduna (erretiroa, elbarritasuna, alarguntasuna, e.a.).

## FAMILIAREN DATUAK BETETZEKO ARGIBIDEAK (2 eta 4 orr.)

2007ko abenduaren 31n etxe berean bizi ziren edozein adinetako senide guztiak jarriko dira.

Familiako kide konputagarriak honako hauek dira: aita, ama, legezko tutorea hala badagokio, eskatzailea, hogeitasei urtetik beherako neba-arreba ezkongabeak edo nagusiagoak ezindu fisiko, psikiko edo sentsozialak baldin badira. Halaber, konputatu ahal izango dira gurasoen aurrekoak, etxe berean bizi badira, eta udalaren egiaztagiri batez ziurtatuz gero.

Gurasoen dibortzio edo epai bidezko banantze kasuan, etxe berean bizi ez diren aita, ama edo neba-arrebak ez dira kide kontagarritzat hartuko, nahiz eta haren ekarpen ekonomikoa kontagarria izan familiaren irabazien atalean. Kide kontagarria izango da, baita ere, hala dagokionean, ezkontide berria edo izatezko elkartze egoeran etxean bizi dena, eta haren errenta eta ondarea, beraz, konputatu egingo dira.

Familia unitate independenteak osatzen dituzten eskatzaileen kasuan, kide konputagarriak izango dira eskatzailea, ezkontidea, edo dagokionean, izatezko elkartze egoeran etxean bizi dena eta baita leudekeen seme-alabak ere.

Era berean, familiak bai legez edo bai izatez jasota duen eta bere kargu duen hogeita sei urtetik beherako pertsona ere konputagarritzat har daiteke, elkarbizitza hori hautaketa-epaimahaiaren ustez behar bezala justifikaturik eta egiazaturik geratzen bada.

Jarduera nagusia ikastea denean, lanbideari edo egiten dituen ikasketei dagozkion hutsunean (1 batez seinalatuan) ikasle-izaera adieraziko da eta, ondoren, egiten diren ikasketak. Ikaslea izan ez eta langilea denean, lanbideari lan egoera erantsiko zaio (L) lanean, (LG) lanik gabe, (E) elbarria, (J) erretiroa hartua, (M) etxeko lanak. 2007an egoera batean baino gehiagotan izan bada, guztiak adieraziko dira.

## 2007. URTEARI DAGOZKION FAMILIAKO DATU EKONOMIKOAK BETETZEKO ARGIBIDEAK (5 orr.)

**(Bakar bakarrik ipini behar dira PFEZren aitortzearen ez dauden datuak, edo aitortzea egin ez denean, horretarako beharrezkoak ez diren datuak)**

Atal desberdinak ondoren adierazten diren zenbatekoak idatziz beteko dira:

1. **Lan pertsonalaren etekinak:** Inoren kontura egindako norbere lanagatik aldian-aldian edo noizean behin jasotako diru-ordainsari guztiak.
2. **Langabezi saria:** langabezia osoa edo zati batekoa izateagatik jasotako dirulaguntzak, kaleratze kalte-ordainak eta enpresako osagarriak.
3. **Kapital mugikorraren etekinak:** kontu korronteen, aurrezkikoen, eperako ezarpenen, zor publikoaren, bonoen eta obligazioen interesak, akzioen dibidenduak, obligazio eta bonoen eskualdaketak, bizi eta elbarritasun aseguru kontratuengatik lortutako etekinak.
4. **Pentsioak eta hartzeko pasiboak,** jubilatua, ezindua, alarguna, eta umezurtza izateagatik, baita aita edo ama hil zaien senideei emandako laguntzak ere, errenta horiek ordaindu behar dituen erakundea edozein dela ere: Gizarte Segurantza, lan-mutualitateak, montepioak, enpresak, edo Estatua bera.
5. **Ezkontidearen konpentsazio pentsioak eta seme-alaben mantentze urte-sariak.**
6. **Bestelako diru-sarrerak:** gizarteratzeko gutxieneko soldata, familiaren laguntzak, errentan izaten diren higiezinengatik diru-sarrerak,...

## **ONDAREARI BURUZKO DATUAK BETETZEKO ARGIBIDEAK (5. orr.)**

**Eskatzaile guztiek orri honetako zati guztiak bete beharko dituzte. Hala dagokionean, EZ DAUKAT idatzi behar da. Familiako kide konputagarri guztien ondare-elementu guztiak ipini behar dira.**

### **Norberaren finkak edo errentan jarri edo hartuak edota utziak.**

A. Hiri-finkak: Erabiltzen diren hiri-finka guztiak ipiniko dira, etxebizitzak, lokalak, orubeak edo zer diren, zertarako erabiltzen diren (merkataritzako lokala, hirugarrenei alokatua, hutsik, etab.) eta non kokatuta dauden zehaztuz (herria, kale edo plaza, zenbakia). Norberarena, errentan edo utzitakoa den. Azaleraren metro koadroak eta hiri-kontribuzioan agertzen den balio katastrala (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).

B. Landa-finkak: Behar den lekuan zerrendatuko dira (norberarenak, errentan, partzuergoan, etab.), hektarea kopurua zehaztuz, ureztatuak edo lehorreko lurak diren, haien balio katastrala (Ondasun Higiezinaren Zergako landa-ondasunen oinarri zergagarria). Halaber zehaztuko dira zer landaketa-mota duten eta ekoiztutakoaren balioa eurotan.

